

## CV LABURRA

Marina Sagastizabal Emilio-Yus, ORCID: 0000-0001-7156-0281

Soziologian lizentziatua 2011n Euskal Herriko Unibertsitatean, eta Ikasketa Feministak eta Generokoak masterreko titulua lortu zuen unibertsitate berean 2012an. Ikertzaile gisa hasi zen, FPU programako doktoratu aurreko beka bat lortuta 2013an. Doktorego-tesia "Presentzia hirukoitza: etxeko eta zaintza lanari, enpleguari eta parte-hartze soziopolitikoari buruzko ikerketa" gaiari buruzkoa da, eta analisi-ardatz berri bat txertatzen du kontziliazioaren eta erantzukidetasunaren arloko azterlanetan. Zuzendariak UABko Teresa Tornó Martín eta EHUKo Matxalen Legarreta-Iza izan ziren. Tesia egiten ari zen bitartean, ikerketa-egonaldi bat ere egin zuen zuzendariarekin batera UABren QUIT zentroan (Centre d'Investigació de la Vida Quotidiana i el Treball), eta ikerketa-proiektu batean parte hartu zuen: "Krisiaren eragina etxeko lanen eta zaintzaren banaketan eta erantzukidetasunean: oztopoak, aukerak eta anibalentziak berdintasunerantz aurrera egiteko".

Zaintzen inguruko ikerketa-ildoari lotuta, estatu mailako erreferentziazko ikerketa-proiektuetan parte hartuz garatzen jarraitu du, hala nola "CUMADE. Zaintzak axola du. Genero-eragina adinekoen eta mendekoen zaintzaileetan covid-19aren garaian "edo CAREMODEL (PID2020-114887RB-C33) "Iraupen luzeko zaintzen eredu trantsizioan: programa komunitarioen artikulazioa Covid-19aren osteko ongizate-sistema publikoan".

Ikerketa-ildo hori Gizarte Langintzako Graduan irakasten du, eta bertako Lan Harremanen eta Gizarte Langintzaren Fakultatean irakasle doktore laguntzailea da gaur egun.

Halaber, parte-hartze soziopolitikoaren inguruko ikerketa-ildoak (MINECO17/P12) SOLIDARY bezalako ikerketa-proiektuen bidez garatzen jarraitzen du: "Solidaritate, elkarrekikotasun eta aliantza berriak: parte-hartze politikorako eta herritartasuna birdefinitzeko lankidetzaren sorrera".

Azkenik, Hezkuntza eta Kirol Fakultatean ere irakasten du, hezkuntzan genero-ikuspegia eta desparekotasun sozialak txertatuz, ROMANCE SUCCEP (PID2022-138681OB-I00) "Gazteen maitasunaren kultura eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako hezkuntza-ibilbideak" bezalako ikerketa proiektuan parte hartuz.

Horren guztiaren ondorioz, erreferentziazko aldizkarietako argitalpenak argitaratu ditu, hala nola, Journal of Family Studies, Política y Sociedad, Journal of Regional Research, Ethnopolitics, etab. Euskaraz ere argitaratu ditu artikulu zientifikoak, adibidez Uztaro, Inguruak edo Jakin aldizkarietan. Halaber, zientzia-arloko liburuak argitaratu ditu Euskal Herriko Unibertsitateko argitaletxearen bidez (SPI zerrendan dagoena), eta dibulgaziozko liburuak ere argitaratu ditu euskarazko eta gaztelaniazko literatura- eta saiakera-argitaletxeen bidez (Susa; Txalaparta).